Tras su retirada, la rotonda ajardinada se ha quedado vacía, y hasta el momento en el que presentamos la interpelación, los focos que iluminaban la escultura seguían encendidos proyectándose sobre las viviendas del entorno, causando molestias a los vecinos de la zona, por las que habíamos recibido diversas quejas.

Tras la interpelación presentada por este grupo, este tema ya se ha resuelto, y los focos han sido retirados.
Desde nuestro punto de vista lo que ha quedado más que demostrado es la precipitación con la que actuó el gobierno municipal al ordenar la retirada de la escultura de Basterretxea sin haber definido un plan para la Plaza Aita Donostia. Una precipitación que ha dejado al barrio de Amara sin uno de sus símbolos más característicos y lo que es peor aún, sin saber qué se va a colocar en dicha plaza.

Los vecinos quieren saber qué va a hacer el Ayuntamiento en dicha plaza, para aportar ideas, y que esta plaza no caiga en el olvido.

Es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a elaborar un proyecto de reordenación viaria de la plaza, y a acordar con los vecinos de Amara el nuevo diseño de la zona ajardinada.

duen.

Donostian, 2015eko urtarrilaren 21ean

En San Sebastián, a 21 de Enero de 2015

Ramon Gomez Ugalde,
Talde Popularraren bozeramailea.

Ramón Gómez Ugalde
Portavoz del Grupo Popular

Eztabaida hasita, Ramón Gómez Ugalde jaunak, Eneko Goia Laso jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Nora Galparsoro Larraza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las/los señoras/es, D. Ramón Gómez Ugalde, D. Eneko Goia Laso, D. Ernesto Gasco Gonzalo y Dª. Nora Galparsoro Larraza en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

-------------------------

5. eta 18. kontrol Mozioak batera landu dira.

Se tratan conjuntamente las Mociones de control nº 5 y nº 18.

**III.2.5 Mozioa, EAJ/PNV taldeak aurkeztua, konstituzio plazan gabonetako argiak jarri ez izana dela-eta.**

Aitziber San Roman Abetek, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, Udal Batzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak oinarri honako MOZIO hau aurkezten du, *Konstituzio Plazan gabonetan argiak jarri ez izana* dela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean 2015eko urtarrilaren 15eko bilkuran izenburu beraren interpelazioaren ondorio da.

**III.2.5. Moción que presenta el Grupo EAJ/PNV sobre las luces navideñas de la plaza de Constitución**

La concejala del grupo EAJ/PNV, Aitziber San Román Abete, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN, relativa a la ausencia de iluminación navideña en la plaza de la Constitución, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación substanciada en la Comisión de Servicios para las Personas que se celebró el pasado día 15 de enero de 2015.

JUSTIFIKAZIOA

Amaitu berri den gabonetako kanpainaren iniziatibetako bat gabonetako argiak kokatzea zen hiriko auzo guztietan. Donostiako Udalak, Donostiako Sustapenaren bitartez diruz laguntzen zuen iniziatiba honen helburua gabonetan jarduera ekonomikoa bultzatzea zen. Horretarako lehiaketa deitu zuen Donostiako Sustapenak eta lehiaketa irabazi zuen enpresak proposaturiko hobekuntzen berri jakinarazi zituen udal gobernuak bai udal web orri ezberdinetan, bai prentsan eta horri esker jakin ahal izan genuen 2014/2015 gabonetako kanpainan Konstituzio Plazak argietako sabaia izango zuela Santo Tomas eguna pasa eta urtarrilaren 7rarte.

Hori horrela, ordea, Konstituzio Plazan ez da argietako sabairik, ez eta beste edozein apingarririk egon gabonetako kanpainak iraun duen bitartean eta hori dela-eta, gaiaren inguruko interpelazioa egin genion Kiroletako eta Garapen Ekonomikoko zinegotzi ordezkariari. Zinegotzi ordezkariak aditzera eman zuenaren arabera, gabonetako argien kontraturako lehiaketa egitean, ez zen aintzakotzat hartu hiriko argiteria sistema ezagut behar zela hori bezalako iniziatiba bat behar bezala burutuko bada.

Ulertezina ez ezik, onartezina ere bada ekonomia sustatzeko iniziatiba bat aurreikuspen eta kudeaketa faltarengatik zapuztea eta udal gobernuak eginahal guztiak egin ebhar ditu horrelakorik berriro gerta ez dadin. Hori dela-eta, EAJ/PNV udal taldeak honako MOZIO hau aurkezten dio

JUSTIFICACIÓN

Una de las iniciativas de la campaña navideña que acaba de finalizar era la colocación de luces navideñas en todos los barrios de la ciudad. El objetivo de la iniciativa, subvencionada por el Ayuntamiento de San Sebastián a través de Fomento de San Sebastián, era fomentar la actividad económica en Navidad. Para ello, Fomento de San Sebastián convocó un concurso, y, una vez finalizado el mismo, el gobierno municipal dio a conocer las mejoras propuestas por la empresa ganadora tanto en las diferentes páginas web del Ayuntamiento como en prensa. Gracias a ello, tuvimos conocimiento de que en la campaña navideña 2014/2015 la plaza de la Constitución contaría con un techo de luces desde el día siguiente al de Santo Tomás hasta el 7 de enero.

Sin embargo, en la plaza de la Constitución no se ha colocado ningún techo de luces ni ningún otro adorno durante la campaña de Navidad, motivo por el que interpelamos al concejal delegado de Deportes y Desarrollo Económico. Según nos informó el delegado, en el concurso del contrato para la iluminación navideña no se contempló la necesidad de conocer el sistema de iluminación de la ciudad para poder llevar a buen puerto una iniciativa como la propuesta.

Resulta incomprensible, además de inaceptable, que una iniciativa para fomentar la economía quede en agua de borrajas por falta de previsión y gestión, por lo que el gobierno municipal debe hacer todo lo posible para que algo así no vuelva a suceder. En consecuencia, el grupo

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Udalbatzari onar dezan:

ERABAKIA

• Udal gobernuari eskatzea hauek bezalako iniziatibak burutzerakoan har ditzala hartu behar diren neurri guztiak iragarri bezala burutuko direla bermatzeko.

• Udal gobernuari eskatzea ez daitezela hauek bezalako egoerak errepikatu.

Donostian, 2015eko urtarrilaren 23an

Aitziber San Roman Abete
EAJ/PNV udal taldeko zinegotzia

municipal EAJ/PNV presenta la siguiente MOCIÓN, para su aprobación por el Pleno:

ACUERDO

• Instar al Gobierno Municipal a que adopte las medidas necesarias en este tipo de iniciativas, para garantizar que se puedan llevar a cabo según lo anunciado.

• Instar al Gobierno Municipal para que este tipo de situaciones no se vuelvan a repetir.

San Sebastián, a 23 de enero de 2015

Aitziber San Roman Abete,
Concejala del grupo municipal PNV/EAJ

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**III.2.18 Mozioa, PSE-EE taldeak aurkeztua, Eguberrietako argiak direla-eta**

PSE-EE taldeko zinegotzi Ernesto Gasco Gonzalok, Udalbatzaren Organo Araudiak jartzen duena aintzakotzat hartu, eta **MOZIO** hau aurkezten dio Udalbatzari, 2015eko urtarrilaren 15eko Batzordean **Eguberrietako argiak** direla-eta egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Eguberriak amaitu berri dira, eta balantzea egiteko ordua da. Deigarria da, batez ere, Eguberrietako argiekin gertatu dena. Udal Gobernuak iragarri zigunez, aurtengo argiztapena esleitua zuen Kordobako enpresak hainbat aldaketa eta berrikuntza egin behar zituen. Alkateak berak

**III.2.18. Moción que presenta el Grupo PSE-EE en relación a las luces de Navidad 2014**

Ernesto Gasco, Portavoz del Grupo PSE-EE, al amparo del vigente ROP, presenta, para su tratamiento en Pleno Municipal, la siguiente **MOCIÓN** como consecuencia de la Interpelación realizada ante la Comisión de Servicios Generales celebrada el pasado día 15 de enero de 2015, con relación a la**s Luces de Navidad**

JUSTIFICACIÓN

Acaba de terminar la Navidad y, llegada la hora de hacer un balance al respecto, llama la atención especialmente lo ocurrido con la Iluminación Navideña. Desde el Gobierno Municipal se nos habían anunciado una serie de cambios y novedades de la mano de la empresa cordobesa que tenía

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

ere, kudeaketa gaiei buruz hitz egin nahi izaten ez badu ere, Konstituzio plazan jarri behar zituzten argiak goraipatu zituen, berritasun handi gisa.

Hasieran esan ziguten San Tomas eguna igaro ondoren jarriko zituztela argiak, baina egun hori joan zen, Eguberriak amaitu dira, eta ez dugu alkateak iragarritako berritasun handi horren berri izan gehiago, eta horren inguruko azalpenik ere ez digute eman. Deigarria da, bestalde, Eguberrietako oso apaingarri gutxi jarri direla erdialdekoak ez diren auzoetan eta jarritakoen kalitatea oso hala moduzkoa izan dela.

Batzordean onartu zituzten egindako akatsak, baina ez zuten argitu zergatik ez zuten eman sortu ziren arazoen berri, ez eta zertara zetorren alkatearen triunfalismo hura ere. Ez zuten zehaztu, ezta ere, zer zigor jarriko dioten argien enpresa esleipendunari.

Aipatutako guztiagatik, honako hau aurkezten dugu

MOZIOA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu taldeari egin dezala espediente edo txosten bat aurten Eguberrietako argiekin gertatutako akatsen inguruan eta jar diezaiola dagokion zigorra enpresa esleipendunari, Eguberrietan eman beharreko zerbitzua osoki edo behar bezala ez emateagatik.

2.- Horrez gain, Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio alkateari ez ditzala

adjudicada la iluminación este año. Incluso el propio Alcalde, poco dado a hablar de los temas de gestión, ensalzó la iluminación que se iba a realizar en la Pza. Constitución, como gran novedad.

En un inicio se dijo que había que esperar a que pasara Sto. Tomás, y después que se iba a instalar, pero lo cierto es que pasó y terminó la Navidad y no se ha vuelto a saber nada sobre esa gran novedad anunciada por el Alcalde, ni tampoco se ha dado explicación alguna al respecto. También llamó la atención la escasísima decoración navideña en los barrios que no son el centro, además de la muy cuestionable calidad de la misma.

En la Comisión correspondiente se reconocieron los fallos ocurridos, pero no se aclaró por qué no se había informado de los problemas ni el triunfalismo del Alcalde. Asimismo, tampoco se concretó la penalización que se va a imponer a la empresa adjudicataria de la iluminación.

Por todo ello, presentamos la siguiente

MOCIÓN

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al equipo de Gobierno a abrir un expediente o informe con los fallos ocurridos con la iluminación navideña de este año y proceder a las penalizaciones oportunas a la empresa adjudicataria por el incompleto e incorrecto servicio ofrecido durante la pasada navidad.

2.- Asimismo, el Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Alcalde a

proposamenak edo zerbitzuak iragarri, baldin eta ematerik izango duten ziur ez badaki, eta, edonola ere, azal dezala zer arazo edo akats izan diren zerbitzua behar bezala ezin emateko.

Donostia, 2015eko urtarrilaren 23a

Ernesto Gasco,
PSE-EE taldearen bozeramailea.

evitar anunciar propuestas o servicios que se van a dar sin tener la certeza de poder darlas y, en todo caso, explicar los problemas o errores que han podido impedir su cumplimiento.

En Donostia-San Sebastián, a 23 de enero de 2015

Ernesto Gasco
Portavoz PSE-EE

Eztabaida hasita, Aitziber San Román Abete andreak, Enrique Ramos Vispo jaunak, Josu Ruiz Martin jaunak eta Vicente García Momblona jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las/los señoras/es, Dª. Aitziber San Román Abete, D. Enrique Ramos Vispo, D. Josu Ruiz Martín y D. Vicente García Momblona en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**5. MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN Nº 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 - (6) PSE-EE, (5) PP, (6) EAJ/PNV.**
**AURKAKO BOTOAK: 8 – BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 - (6) PSE-EE, (5) PP, (6) EAJ/PNV.**
**VOTOS EN CONTRA: 8 – BILDU.**

**18. MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN Nº 18:**

**- 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**- 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 - (6) PSE-EE, (5) PP, (6) EAJ/PNV.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 - (6) PSE-EE, (5) PP, (6) EAJ/PNV.**
**ABSTENCIONES: 8 – BILDU.**

–----------------------------

6. eta 15. kontrol Mozioak batera landu dira.

Se tratan conjuntamente las Mociones de control nº 6 y nº 15.

**III.2.6 Mozioa, EAJ/PNV taldeak aurkeztua, hiriaren garbitasuna dela-eta**

Aitziber San Roman Abetek, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, Udal Batzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak oinarri honako MOZIO hau aurkezten du, *hiriaren garbitasuna* dela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Gune Publikoko Batzordean 2015eko urtarrilaren 15eko bilkuran Alde Zaharraren jai egunen ondorengo garbitasunari buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Azken Santo Tomas egunaren ondorengo egunean jaia ospatu zen hiriko guneak oso zikin zeuden eguerdiko 14etan; hau da, bertan bizi eta lan egiten duten pertsonek zaborrez eta zikinkeriaz beterik aurkitu zituzten haien kaleak. Alde Zaharreko kaleak bereziki agertu ziren zikin eta 14:30etatik aurrera garbitu baziren ere, garbiketa ez zen behar bezain egokia izan eta iluntzeko 20etan oraindik zeuden zabor poltsak inguruan.Alde Zaharrean, gainera, denbora

**III.2.6. Moción que presenta el Grupo EAJ/PNV sobre la limpieza de la ciudad**

Aitziber San Roman Abete, concejala del grupo municipal PNV, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN, referente a la *limpieza de la ciudad*, para que se tratada en el pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación que fue sometida a la consideración de la Comisión de Espacios Públicos en la sesión del 15 de enero de 2015, referente a la limpieza de la Parte Vieja tras las celebraciones festivas,.

JUSTIFICACIÓN

Al día siguiente de que se celebrara Santo Tomás, las zonas de la ciudad en las que se llevó a cabo la fiesta estaban muy sucias a las dos del mediodía; es decir, las personas que viven y trabajan en esos espacios encontraron las calles llenas de basura y suciedad. Especialmente sucias aparecieron las calles de la Parte Vieja, y aunque las adecentaron a partir de las 14:30, la limpieza no fue tan adecuada como debía, y a las 8 de la tarde todavía había bolsas de basura en

luzez jasan behar izan du Aldamar kalean zikinkeria eta bizilagunek gaiaren inguruak egindako kexei muzin egin die udal gobernuak.

los alrededores. En la Parte Vieja, además, durante largo tiempo han tenido que soportar la suciedad en la calle Aldamar, y el Gobierno municipal ha hecho oídos sordos a las quejas al respecto realizadas por el vecindario de esa zona.

Behin baino gehiagotan adierazi dugun bezala, Donostiako kaleak ez dira azken urte hauetan behar bezain garbi egoten, eta Santo Tomas egunaren ondorengo egunean gertaturikoak udal gobernuak legealdian zehar gai honekiko izan duen eta duen zabarkeria utzi du agerian. Zorionez, San Sebastian egunaren ondorengo egunean ez zen aipatu dugun egoera errepikatu; baina udal gobernuak bermatu behar du Donostiako kaleak eta gune guztiak txukun daudela bai egunero, bai jai berezien ondorengo egunetan ere eta hori horrela izan dadin, EAJ/PNV udal taldeak honako MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzari onar dezan:

Tal y como hemos manifestado en más de una ocasión, las calles de San Sebastián no están estos últimos años tan limpias como debieran, y lo sucedido al día siguiente de la festividad de Santo Tomás ha dejado en evidencia la negligemcia que ha mantenido y mantiene el Gobierno municipal respecto a este asunto. Por suerte, al día siguiente de la festividad de San Sebastián no se repitió la situación que hemos mencionado; pero el Gobierno municipal debe garantizar que las calles y todos los espacios de San Sebastián estén adecentados tanto a diario como en las fechas posteriores a las fiestas especiales, y para que así sea, el grupo municipal PNV somete a la aprobación del Pleno la siguiente MOCIÓN

ERABAKIA

- Udal gobernuari eskatzea har ditzala behar diren neurriak Donostiako kaleen garbitasun egoera egokia izan dadin urteko egun guztietan.

ACUERDO

- Instar al Gobierno municipal a que adopte cuantas medidas sean precisas para que la limpieza de las calles de San Sebastián sea la adecuada todos los días de año.

Donostian, 2015eko urtarrilaren 23an

En San Sebastián, a 23 de de enero de 2015

Aitziber San Roman Abete
EAJ/PNV udal taldeko zinegotzia

Aitziber San Román Abete,
concejala del grupo municipal PNV.

**III.2.15 Mozioa, PSE-EE taldeak aurkeztua, parte zaharreko zabor bilketa eta San**

**III.2.15. Moción que presenta el Grupo PSE-EE sobre sistema limpieza y recogida**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**Tomas egunaren ondoko bilketa dela eta**

Ernesto Gasco PSE-EE udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. oinarri, MOZIO hau aurkezten du, joan den urtarrilaren 12ko Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Parte Zaharreko bilketa sistema berriaren eta San Tomas ondoko eguneko bilketaren inguruan aurkeztutako INTERPELAZIOAren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA:

Aurreikuspen faltagatik, Parte Zaharrean zabor gehiegi pilatu zen San Tomas ondoko egunean, edukiontzi asko eta asko goraino bete ziren, eta zabor piloa azaldu zen lurrean. Parte Zaharreko leku batzuk, hala nola Konstituzio plaza, egoera tamalgarrian zeuden, eta, eguerdian oraindik, beirazko eta plastikozko botilak han-hemen barreiatuta zeuden, hondakin ugari zegoen lurrean… Arratsaldean egoera ez zegoen erabat normaldua, eta garbitzeko makinek lanean jarraitzen zuten.

Bestalde, Parte Zaharreko bilketa zerbitzu berria erabat prest egon gabe jarri da martxan. Horren froga da establezimendu askori ez zaizkiela oraindik poltsak banatu, Sarriegi plazako edukiontziak itxita zeudela, eta Aldamar kaleko edukiontziak, berriz, gainezka.

Gainera, ordutegiak egokitu egin behar izan

**parte vieja y sobre la recogida el dia después de Santo Tomas**

Ernesto Gasco , Portavoz del Grupo Municipal PSE-EE, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, tiene a bien presentar la siguiente MOCION, como consecuencia de la INTERPELACIÓN substanciada ante la comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, del pasado 12 de Enero en relación al nuevo sistema de recogida en la parte vieja y el día después de Santo Tomás.

JUSTIFICACIÓN:

La falta de previsión ha hecho que en la Parte Vieja se haya acumulado exceso de basura al día siguiente de Santo Tomás, infinidad de contenedores llenos, cantidad de basura por el suelo. El escenario que presentaban algunos puntos de la Parte Vieja, como la plaza Constitución era lamentable donde a mediodía seguían esparcidas botellas de cristal y de plástico, había numerosos desperdicios por el suelo ... Todavía por la tarde la normalidad seguía sin restablecerse y se continuaba trabajando con las máquinas limpiadoras.

Por otra parte, el nuevo servicio de recogida en la Parte Vieja ha entrado en funcionamiento sin que estuviera completamente preparado. Ejemplo de ello es que a muchos establecimientos no se les había entregado sus correspondientes bolsas, los contenedores de la plaza Sarriegi estaban cerrados y los contenedores como los de la calle Aldamar se han visto desbordados.

Además, ha sido necesario un reajuste

dira, denda eta tabernen funtzionamenduarekin bateragarri egiteko. Begi bistakoa da, beraz, sistema berria alderdi inplikatuak kontuan izan gabe jarri dela martxan.

Gobernu taldeari proposatzen diogu Parte Zaharreko gune estrategiko batzuetan jartzea beira eta ordutegia biltzeko edukiontziak, ordutegirik gabe, merkatari eta ostalariek ordutegi malguagoa izan dezaten.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako mozioa aurkezten du:

MOZIOA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Bilduren Udal Gobernuari egin ditzala egin beharreko aldaketak Parte Zaharreko zaborra biltzeko sistema berrian, alde horretako pertsona eta sektoreen eskariei egokitzeko.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Bilduren Udal Gobernuari jar ditzala neurri zuzentzaileak, ekitaldi baten hurrengo egunean San Tomas egunaren ondoren gertatutakoa berriz gerta ez dadin.

Donostia, 2015eko urtarrilaren 29a

Ernesto Gasco,
PSE-EE taldearen bozeramailea.

posterior de los horarios para compatibilizarlos con el funcionamiento de las tiendas y bares. Es evidente, por tanto, que el nuevo sistema se ha puesto en marcha sin tener en cuenta a las partes implicadas.

Invitamos al equipo de Gobierno a que coloque en algunos puntos estratégicos de la Parte Vieja contenedores para la recogida de vidrio y papel sin horario para que los comerciantes y hosteleros dispongan de una mayor flexibilidad horaria.

Por ello el concejal que suscribe presenta la siguiente

MOCION

1º.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal de Bildu, a que haga las modificaciones oportunas en el nuevo sistema de recogida basura de la Parte Vieja para adaptarlo a las demandas de las personas y sectores de la zona.

2º.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal de Bildu a establecer medidas correctoras para que al día siguiente de celebrarse un evento no ocurra lo sucedido tras Santo Tomás.

Donostia/San Sebastián, 29 de Enero de 2015

Ernesto Gasco
Portavoz PSE-EE

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Aitziber San Román Abete andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Nora Galparsoro Larraza andreak eta Vicente García Momblona jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las/los señoras/es, Dª. Aitziber San Román Abete, D. Ernesto Gasco Gonzalo, Dª. Nora Galparsoro Larraza y D. Vicente García Momblona en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**6. MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN Nº 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 - (6) PSE-EE, (5) PP, (6) EAJ/PNV.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 - (6) PSE-EE, (5) PP, (6) EAJ/PNV.**
**ABSTENCIONES: 8 – BILDU.**

**15. MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN Nº 15:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 - (6) PSE-EE, (5) PP, (6) EAJ/PNV.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 - (6) PSE-EE, (5) PP, (6) EAJ/PNV.**
**ABSTENCIONES: 8 – BILDU.**

--------------------------------

**III.2.7 Mozioa, PSE-EE taldeak aurkeztua, DonostiTruk, berriz ere hasierako tokira (Easo plazara) itzultzearen gainean.**

PSE-EE taldeko zinegotzi Denis Itxaso Gonzalezek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu

**III.2.7. Moción que presenta el Grupo PSE-EE con relación a la conveniencia de que el Mercadillo de segunda mano DonostiTruk vuelva a su espacio original en la plaza Easo**

D. Denis Itxaso González, Concejal del Grupo PSE-EE, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno



IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Hiri Lan eta Zerbitzuak) 2014ko azaroaren izan zuen bileran bigarren eskuko gauzen azoka, DonostiTruk, berriz ere hasierako tokira (Easo plazara) itzultzearen gainean egindako interpelazioaren ondorioz.

la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público, Obras y servicios de Noviembre de 2014, con relación a la conveniencia de que el Mercadillo de segunda mano DonostiTruk vuelva a su espacio original en la plaza Easo

JUSTIFIKAZIOA

Udalaren Ingurumen Sailak 5 urte behintzat badaramatza, ongintzako erakunde txiki batzuekin batera, bigarren eskuko gauzen azoka bat antolatzen Suhiltzaileak izan ziren eta orain Europako Kulturaren Hiriburutza den tokian, Easo kalean, hilean behin, larunbat batean.

Azoka antolatzea Artelatz enpresari agindu zion Udalak, eta hasieran kanpo librean egiten zen, Easo plazan. Ekimen horretan postuak jartzen zituzten erakundeek esaten dute giro hobea zela eta jende gehiago etortzen zela orduan. Denborarekin —postuak jartzen dituzten talde batzuetakoek esan digutenez behintzat—, salerosketak urritu egin dira eta giroak ere behera egin du. Haiek esaten dute oraingo tokian argitasun gutxi dagoela, iluntasun handia eta leku gutxi, eta horregatik egin duela behera merkatuak.

Hori dela eta, erakunde horiek behin baino gehiagotan eskatu dute, nahiz eta eguraldi txarra egiteko arriskua izan, hasierako tokira (Easo plazara) edo antzeko beste toki batera itzultzea, aire librean, erdi samarrean eta oinezkoen joan-etorri gutxieneko bat duena izanez gero behintzat beste toki hori.

JUSTIFICACION

El Departamento municipal de Medio Ambiente lleva al menos 5 años organizando, en colaboración con pequeñas organizaciones benéficas, un mercado de segunda mano que se celebra una vez al mes en el antiguo edificio de bomberos, hoy sede de la capitalidad cultural europea, en la calle Easo, un sábado al mes.

En sus inicios, el mercado, para cuya organización el Ayuntamiento contrató a la empresa Artelatz, se celebraba al aire libre en la plaza Easo, y según afirman las organizaciones que participan de la iniciativa montando los diferentes puestos de compraventa, el ambiente y la afluencia eran mejores. Con el tiempo, y siempre según el testimonio recabado por este grupo interpelante entre algunas de las organizaciones que montan los puestos, el número de transacciones ha ido decayendo, y el ambiente también ha languidecido. Los participantes esgrimen razones ligadas a la poca visibilidad, a la oscuridad reinante, a la falta de espacio, para explicarse este declive.

Estas organizaciones han solicitado en más de una ocasión, que, aún a riesgo de enfrentarse al posible mal tiempo, se recupere la ubicación original de la plaza Easo o alguna otra ubicación, siempre y cuando sea al aire libre, céntrica, y que concite un suficiente tránsito peatonal.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Gai horren ardura duen zinegotziari dagokion batzordean galdetu eta ezetz esan zuen, ez dela hobe lehengo tokira itzultzea, eta, saltzaile txikiek hala nahiago badute ere, hobe dela bigarren eskuko gauzen azoka Kultuaren Hiriburutzaren lokaletan egitea, lehen Suhiltzaileak izan ziren tokian.

Preguntado en Comisión informativa el Concejal responsable de la materia, éste rechazó tal conveniencia y siguió defendiendo que, pese a las preferencias de los pequeños asentadores, el mercadillo de segunda mano se siga celebrando en las dependencias de la Capitalidad Cultural, en el antiguo edificio de bomberos.

Hori dela eta, hau da PSE-EE udal taldearen

Por todo lo que antecede, el Grupo Municipal del PSE-EE, plantea la siguiente

MOZIOA:

MOCION:

**Aurreneko erabakia.-** Donostiako Udalbatzak berriz pentsatzeko eskatzen dio Bilduren Udal Gobernuari Donostitruk bigarren eskuko gauzen azoka egiteko tokiarena, atzera ere Easo plazan edo estali gabeko beste tokiren batean behintzat egiteko bidea izan dadin.

**Acuerdo primero.-** El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Gobierno Municipal de Bildu a reconsiderar la ubicación del mercadillo Donostitruk de segunda mano que se celebra con periodicidad mensual, con el objeto de que éste pueda celebrarse de nuevo en la Plaza Easo, o al menos en alguna ubicación al aire libre.

Donostian, 2014ko urtarrilaren 7an

En Donostia/San Sebastián, a 7 de Enero de 2014

Izpta.: Denis Itxaso
PSE-EEko zinegotzia

Fdo: Denis Itxaso
Concejal del PSE-EE

Eztabaida hasita, Enrique Ramos Vispo jaunak, Miren Azkarate Villar andreak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las/los señoras/es, D. Enrique Ramos Vispo, Dª. Miren Azkarate Villar, D. Axier Jaka Goikoetxea y D. Jose Luis Arrue Pinto en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA**
**MAYORÍA.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**ALDEKO BOTOAK: (11)- 5-PP, 6-PSE-EE**
**AURKAKO BOTOAK: (14)- 8-BILDU, 6-EAJ/PNV**

**VOTOS A FAVOR: (11)- 5-PP, 6-PSE-EE**
**VOTOS EN CONTRA: (14)- 8-BILDU, 6-EAJ/PNV**

-----------------------------

**III.2.8 Mozioa, EAJ/PNV taldeak aurkeztua, lur azpiko aparkalekuen egoera adierazteko seinaleek ematen duten informazioaren gainekoa**

EAJ taldeko zinegotzi Martin Ibabe Ezeiza naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkezten diot Udalbatzari, azterkizun, Gune Publikoen Batzordeak 2015eko urtarrilaren 15ean izandako bileran lur azpiko aparkalekuen egoera adierazteko seinaleek eskaintzen duten informazioaren inguruan aurkezturiko interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Duela urte batzuk erabakitakoaren arabera, Donostiako erdialdeko lurpeko aparkalekuen betetze maila adierazteko seinale sistema bat ezarri zuten. Sistema sare moduan jarrita dago, hala, Donostiara sartzeko bide nagusietan informazio hori gidariei eskaintzeko.

Panel horiek tresna muntadun bat dira trafikoa behar bezain etengabea izateko, benetan aparkalekuak zein egoeratan diren egokiro argitzen badute.

**III.2.8. Moción que presenta el Grupo EAJ/PNV relacionada con la información que se ofrece en la señalética habilitada para informar del estado de los estacionamientos subterráneos.**

D.Martin Ibabe Eceiza, concejal del Grupo Municipal EAJ-PNV, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, tiene a bien presentar la siguiente MOCION. como consecuencia de la Interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos el 15 de Enero del 2015, en relación con la información que se ofrece en la señalética habilitada para informar del estado de los estacionamientos subterráneos.

JUSTIFICACIÓN.

Hace unos años, se decidió establecer un sistema de señalización informativa en relación al estado de ocupación de los estacionamientos subterráneos en el centro de la ciudad. Este sistema se estableció a modo de red, de tal manera que dicha información fuera ofrecida a los conductores en las vías principales de entrada.

Estos paneles son un instrumento fundamental a la hora de dotar al tráfico de la fluidez necesaria, si ofrecen la información adecuada al estado real en el que se encuentran los estacionamientos.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Une hauetan, askotan, ematen duten informazioa okerra izaten da, eta auzi horrek nabarmen zailtzen du trafikoa arautzea eta etengabea izatea. Egoera larriagotzen da zenbait jaitan, Donostiak hartu ohi izaten dituelako ibilgailu pribatuetan datozen bisitari asko, trafikoa areagotu eta kolapsatu egiten delarik.

En estos momentos, en demasiadas ocasiones, la información que ofrecen es errónea, cuestión que perjudica seriamente al ordenamiento del tráfico y a su fluidez. Esta situación se agrava en determinadas festividades, cuando la ciudad recibe un importante número de visitantes en vehículos particulares, provocando e incrementando el colapso del tráfico

Egoera maiz errepikatzen dela ikusita, behartuta gaude ondokoa aurkeztera

Viendo que esta situación se viene repitiendo con demasiada frecuencia, nos vemos en la necesidad de proceder a la presentación de la siguiente:

MOZIOA

.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu taldeari behar bezala kudeatu eta eguneratzeko informazio sistema, hala lur azpiko egoerari buruzko informazioa unean uneko benetako egoeraren araberakoa izateko.

MOCION

.- El Ayuntamiento Pleno insta al equipo de Gobierno a que realice todas las gestiones y actualizaciones necesarias para que el sistema de información vinculado a la situación de los estacionamientos subterráneos ofrezca en todo momento la información real de la situación existente.

Donostian, 2015keo urtarrilaren 23an

En Donostia, a 23 de Enero del 2015

Sinatua: Martin Ibabe Ezeiza,
Donostiako EAJko zinegotzia.

Fdo: Martin Ibabe Eceiza
Concejal EAJ/PNV Donostia

Eztabaida hasita, Martin Ibabe Eceiza jaunak, Jon Albizu Agirrezabalaga jaunak eta Iñigo Arcauz Ascargorta jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las/los señoras/es, D. Martin Ibabe Eceiza, D.Jon Albizu Agirrezabalaga y D. Iñigo Arcauz Ascargorta en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

—-------------------------

9. eta 14. kontrol Mozioak batera landu dira.

Se tratan conjuntamente las Mociones de control nº 9 y nº 14.

**III.2.9 Mozioa, EAJ/PNV taldeak aurkeztua, ate irekiak zerbitzua dela-eta.**

EAJ/PNV taldeko zinegotzi Aitziber San Roman Abetek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98.artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du *Ate Irekiak izeneko zerbitzua* dela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau, Pertsonentzako Zebitzuetako Batzordearen 2015eko urtarrilaren 15eko bilkuran gai beraren inguruan egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalak aspaldian eskaintzen duen zerbitzua da “Ate Irekiak” izenekoa eta haren helburua hotz handiko edota baldintza metereologiko oso kaskarreko gauetan kalean bizi diren pertsonei lo egiteko leku babesa eskaintzea da; zerbitzu hau ez da Abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean zehazten denetako bat, baina, adierazi bezala, Donostiako Udalak duela urte dezente ari da eskaintzen.

Hori horrela, baina, pasa den abenduaren 29

**III.2.9. Moción que presenta el Grupo EAJ/PNV sobre el servicio de puertas abiertas**

Aitziber San Román Abete, concejala del grupo EAJ/PNV, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta, para su tratamiento en Pleno Municipal, la siguiente moción, consecuencia de la interpelación substanciada en la Comisión para las Personas celebrada el pasado día 25 de enero de 2015, en relación con el Servicio Puertas Abiertas.

JUSTIFICACIÓN

El servicio de Puertas Abiertas es un servicio que el Ayuntamiento de Donostia viene ofreciendo desde hace mucho tiempo. Su objetivo consiste en ofrecer un lugar para que las personas que viven en la calle puedan dormir a resguardo los días en los que hace mucho frío o las condiciones meteorológicas son adversas. Este servicio no está incluido en la Ley de Servicios Sociales del 5 de diciembre, pero, tal y como hemos señalado, se trata de un servicio que el Ayuntamiento de Donostia ofrece desde hace bastantes años.

Sin embargo, y a pasar de que las noches

eta 30eko gauetan gure hirian zero azpiko tenperatura izan bazen ere, Ate Irezkian Zerbitzua ez zen abian jarri eta gau horietan kalean lo egin behar izan zuten normalean hala egiten dutenek. Zorionez ez zen ezer larririk gertatu; baina gertakizunaren larritasunak kezkatuta interpelazioa egin genion Gizarte Ongizateko, Lankidetzako eta Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariari jakiteko zer gertatu zen abenduaren 29an protokoloa abian ez jartzeko eta zer dela-eta errepikatu zen egoera hurrengo gauean ere.

del 29 y el 30 de diciembre se registraron temperaturas por debajo de cero en nuestra ciudad, este servicio de Puertas Abiertas no fue activado, por lo que las personas sin hogar tuvieron que pasar la noche en la calle. Afortunadamente no ocurrió nada grave, pero, ante la preocupación que nos produjo un hecho de semejante gravedad, presentamos una interpelación al concejal delegado de Bienestar Social, Cooperación y Movilidad, con el fin de conocer qué había pasado para que el 29 de diciembre no fuese activado el protocolo de actuación y por qué se volvió a repetir esa situación la noche siguiente.

Zinegotzi ordezkaria luze aritu bazen ere, ez zituen EAJ-PNV udal taldeak eginiko galderak erantzun eta interpelazioa egin genuenean adierazten genuen bezala, berriro errepikatu ezin den egoera da gertatu zena; baina horretarako neurriak hartu behar dira eta hori dela-eta, EAJ/PNV udal taldeak honako MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzari, onar dezan:

ERABAKIA:

- Udal gobernuari eskatzea Ate Irekiak Zerbitzua abian jartzeko protokoloa azter dezala, zerbitzu hori beharrezkoa denean aktibatu ahal izateko malgutasuna eduki dezan .

A pesar del largo tiempo utilizado por el concejal en su respuesta, éste no respondió a las preguntas planteadas por el grupo municipal de EAJ/PNV y, tal y como indicamos en la interpelación realizada, consideramos que se trata de unos hechos que no se pueden volver a repetir, pero, para ello, es preciso que se tomen una serie de medias. Es por ello que el grupo municipal de EAJ/PNV presenta, para su aprobación en pleno, la siguiente

MOCIÓN:

- Instar al Gobierno municipal a que analice el protocolo de activación del Servicio de Puertas Abiertas, al objeto de que se le dote de una cierta flexibilidad para los casos en los que sea preciso activar dicho servicio.

Donostian, 2015eko urtarrilaren 23an

San Sebastián, a 23 de enero de 2015

Aitziber San Roman Abete
EAJ/PNV udal taldeko zinegotzia

Aitziber San Román Abete,
concejala del grupo municipal EAJ/PNV

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**III.2.14 Mozioa, PSE-EE taldeak aurkeztua, ate irekiak izeneko zerbitzua dela-eta.**

PSE-EE taldeko zinegotzi Ernesto Gascok, indarrean den Udalbatzaren Araudi Organikoak ematen dion babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi du.

JUSTIFIKAZIOA

Iazko abenduaren 28tik 29ra bitarteko gauean zeroz beheko tenperaturak izan ziren, eta hala ere ez zen Ateak irekitzeko zerbitzurik jarri, hotzaldietan edo eguraldi oso txarra denean gaua pasatzeko ematen den zerbitzua. Helburua eguraldi oso txarra denean kanpoan inork ere lo egin beharrik ez izatea da. Hurrengo gauean ere zeroz behetik jaitsi zen tenperatura, eta berriz ere ireki gabe geratu zen zerbitzua.

Hala, interpelazio bat egin genion batzordeak Jon Albizu zinegotzi eskuordedunari, eta galdetu genion ea zergatik ez zuen, iragarpenak goiti-beheiti, Egoera meteorologikoa muturrekoa denean etxerik ez duten pertsonei behar-beharreneko arreta emateko dispositiboaren 3. eranskineko 3.4 puntuko azkeneko paragrafoak jartzen duena aintzakotzat hartu; zera jartzen baitu hark: **iragarpenak ez du beti-beti asmatzen, eta, den eguraldiak hala aholkatzen badu, izango da zerbitzua irekitzeko bidea, nahiz eta tenperatura ez dela -1eraino jaitsiko agindu iragarpenak.** Harrituta geratu baginen ere, Albizu zinegotziaren erantzuna ez zen egokia izan guretzat, eta galdetutakotik oso aparte aritu zen.

**III.2.14. Moción que presenta el Grupo PSE-EE sobre el servicio de Puertas Abiertas**

Ernesto Gasco, Concejal del Grupo PSE-EE, al amparo de lo establecido en el vigente Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN.

JUSTIFICACIÓN

En la madrugada del 28 al 29 del pasado mes de diciembre se registraron temperaturas por debajo de cero grados, a pesar de lo cual no se activó el servicio de Puertas Abiertas (SPA), alojamiento nocturno que se abre ante “olas de frío” o momentos de meteorología especialmente adversa. El objetivo es que ninguna persona duerma en la calle en unas circunstancias meteorológicas extremas. La noche siguiente la temperatura volvió a ser inferior a cero grados y de nuevo siguió sin funcionar este recurso.

En la Comisión correspondiente presentamos una interpelación al Concejal Delegado, Jon Albizu, preguntándole por qué, más allá de las previsiones, no tuvo en cuenta el último párrafo del punto *3.4. Apertura del Servicio del* anexo 3 del *Dispositivo para la atención de urgencia a personas sin techo en situaciones de meteorología extrema* que dice: **“a veces la previsión resulta errónea” y que “cuando la meteorología real así lo aconseje se podrá activar el recurso aun cuando la previsión de temperatura mínima sea superior a -1 grado.”** Para nuestra sorpresa, la respuesta del Sr. Albizu no sólo no fue satisfactoria, sino que se alejó por completo de lo que se le preguntaba.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Izan ere, sozialisten taldeari iruditzen zaio kalean lo egiten duten pertsonen kontua kontu oso serioa dela, eta oraindik eta gehiago horren tenperatura hotzak izaten direnean, lehen esandako egun haietan izan zen bezala, eta, hori dela eta, eta Albizu zinegotziak azalpenik eman ez zuenez, hauxe da osoko bilkuran aztertzeko aurkeztu dudan

MOZIOA

• Donostiako Udalbatzak Gizarte Ongizateko eskuordedunari eskatzen dio, hura baita alor horren erantzule politikoa, azkar eta bizkor ekiteko kalean ahal dela inork ere lo egin beharrik ez izateko den eguraldiak hala aholkatzen badu, protokoloan jarrita dagoen bezala.

Donostian, 2015eko urtarrilaren 22an

Ernesto Gasco,
PSE-EEren bozeramailea

Al grupo socialista le parece que el tema de las personas que duermen en la calle es muy serio, máxime cuando las temperaturas son tan extremas como sucedió en los días mencionados, por lo que, ante la falta de explicaciones del Sr. Albizu, el concejal que suscribe plantea para su tratamiento en Pleno, la siguiente

MOCIÓN

• El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Delegado de Bienestar Social, como responsable político de su área, a actuar con inmediatez y la mayor celeridad posible para evitar que haya personas que duerman en la calle cuando la meteorología real así lo aconseje, tal como está previsto en el protocolo.

En Donostia/San Sebastián, a 22 de enero de 2015

Ernesto Gasco
Portavoz del PSE-EE

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Aitziber San Román Abete andreak, Maravillas Dafauce Pozo andreak, Maria Iciar Aguilera de Juana andreak eta Jon Albizu Agirrezabalaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las/los señoras/es, Dª. Aitziber San Román Abete, Dª. Maravillas Dafauce Pozo, Dª Maria Iciar Aguilera de Juana y D. Jon Albizu Agirrezabalaga en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**9. MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN Nº 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**14. MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN Nº 14:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

-------------------------------

**III.2.10 Mozioa, EAJ/PNV taldeak aurkeztua, Ametzagañako parkean luiziak behin eta berriz izaten direla eta.**

Martin Ibabe Eceiza EAJ/PNV taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) urtarrilaren 15ean izan zuen bileran Ametzagañeko parkean beste luizi bat izan dela-eta aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Abenduan, euria hastearekin batera, beste luizi bat izan da Ametzagañeko parkean, eta, oraingoan ere, azpiko aldetik doan bidegorriari erasan dio.

Parkea duela urte gutxi inauguratu zen, baina, harrez geroztik, ugari izan dira luiziak, lerradurak, bide hausturak eta abar.

Gure ustez, parketik igarotzen diren oinezkoen bideen eta bidegorrien

**III.2.10. Moción que presenta el Grupo EAJ/PNV relacionada con los constantes desprendimientos que vienen produciéndose en el Parque de Ametzagaña**

D.Martin Ibabe Eceiza, concejal del grupo municipal EAJ, al amparo del vigente artículo 98 el Reglamento orgánico de Pleno, tiene a bien presentar la siguiente MOCIÓN. La siguiente MOCIÓN, es consecuencia de la Interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos celebrada el día 15 de Enero, relacionada con un nuevo desprendimiento en el parque de Ametzagaina.

JUSTIFICACIÓN

En Diciembre, como consecuencia de las primeras precipitaciones, se ha producido un nuevo desprendimiento en el parque de Ametzagaina, afectando una vez más al bidegorri que discurre por la parte inferior.

Desde la inaguración de este parque, hace unos pocos años, se han producido numerosos desprendimientos, deslizamientos, rupturas de caminos...

A nuestro modo de ver, la cuestión mas urgente debe estar vinculada con la

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

segurtasuna da premiazkoena, askotxotan gelditu baitira lurrak estalita.

seguridad de los caminos peatonales y bidegorris que discurren por el parque, lugares que en demasiadas ocasiones han sido sepultados por desprendimientos de terreno.

Behin eta berriz azpimarratu izan dugu alderdi hori, hain zuzen ere, onartezina iruditzen zaigulako behar diren bitarteko guztiak ez jartzea arrisku hori ezabatzeko.

Sobre esta cuestión venimos insistiendo reiteradamente porque nos parece inaceptable no poner todos los medios necesarios para eliminar el peligro que todo esto supone.

Horretarako, lehen-lehenik, beharrezkoa dugu Gobernu taldeak aurkeztuko zuela hitzeman bai baina, behin eta berriz eskatu arren, oraindik ezagutzen ez dugun txosten hori izatea.

La primera de las herramientas necesarias es disponer del informe que el equipo de Gobierno se comprometió a presentar y que a pesar de nuestra insistencia seguimos sin conocer.

Horiek horrela, hauxe da aurkezten dugun

Ante la situación descrita, procedemos a presentar la siguiente:

MOZIOA

